

## PLATON Y LA POESIA – JAVIER AGUIRRE

“Platon y la poesía” liburuan Platonen eskutik, filosofia eta poesiaren arteko harreman gatazkatsua lantzen da.

Platonek, filosofia eta poesia deberdintzen zituen, filosofia poesiaren aurkako disziplina bezala jarriz, Homero eta Hesiodoren poesiaren eta honi loturiko tradizioaren aurka, alegia.

Platon ez da disziplinen arteko banaketa hau egin zuen bakarra, eta bere aurretik bestelako pentsalari batzuek ere antzeko tesiak plazaratu zituzten: Heraklito eta Jenofanes kasu, kritika gogorra egin zietelarik beraien garaiko poetei. Hala ere eragin gehien izan zuena poesia eta filosofiaren arteko banaketan Platon izan zen, filosofia poesiarengandik gailenduz. Gainera geroago ikusiko dugun bezala, Platonek poesiak hirian zuen eragin kaltegarria azpimarratu zuen.

Platonen lana poesiaren aurkako argudioz beterik dago, eta horrela, lehen esan bezala, lortu zuen nahi zuen bezala filosofia eta poesia banatzea. Bere ustez, poetek jendearengan eragitea bilatzen zuten, nahi zuten klabeetan hezteko beste pertsona; hezkuntzaren osotasuna kontrolatu nahi zutelakoan zegoen. Platon ez zetorren poetei egozten zizkien helburuekin bat, horregatik jokatu zuen horren gogor poesia eta poetekiko.

Kritika hau bereziki bi alderdigatik egiten du. Batetik, bere kanpo jatorria dela eta, bestetik, imitaziozko natura delako. Poetek beraien lanak egiteko inspirazioa behar dute, eta filosofoaren ustez honek ezagutza falta adierazten du. Aipatutako imitazioari dagokionez, kritika zorrotza ere bideratzen du honekiko, azken finean imitazioak ideia baten objetuaren imitazioa delako, honek egiatik hurrin kokatuz poetan eginiko imitazioa. Horregatik, ez du ikusten honek zer eman diezaiokeen gizarteari.

Honek ez du esan nahi poesiaren kontra dagoenik Platon, soilik bere garaiak egiten ari zen poesiaren kontra zegoela. Hori dela eta, poesia berri baten sorkuntza bultzatzen du, egiaren bilaketa eta honen zabaltzea helburu duena. Poesia hau, filosofiaren menpe kokatzen du.

Azaldutako guzti hau, eta honen oinarritzko ideiak Platonen *Ion* dialogoan daude, hemen oso argi adierazten baita Platonen ikuspuntua.

Dialogo honetan, Sokrates filosofoa eta Ion rapsodaren arteko elkarrizketa bat ematen da. Helburua nolabait poeta eta rapsoden lanari balioa kentzea da. Sokrates filosofoen ordezkari bezala agertzen zaigu, Platonen pentsamendua beregan ikusten delarik; eta Ion ordea rapsoda edo poeten ordezkari bezala, rapsoden artean onena delako.

Dialogoan, Sokrates saiatuko da ikustarazten Ioni ez duela *téchne*-rik egiten duena egiteko, hau da, beraiek egiten dutenak ez duela inongo ezagutzarik suposatzen. Honen arrazoia da, *techne*-a izateko oinarritzko bi printzipio izan behar dituela: espezialitatearena eta osotasunarena. Espezialitatearen printzipioak suposatzen du, *techne* bakoitzak ezagutza eremu

konkretu bat duela. *Ion* dialogoan ikus daitekeen bezala, Ion rapsodak dio Homero edozein gai ondo lantzeko gai dela, eta guztiei buruz zerbaite esan dezakeela. Horregatik, Ion ere Homerori buruz dena esateko gai denez, gai horiei buruz ere hitz egiteko gai da. Hori dela eta, aurretik aipatutako espezialitatearen printzipio hau ez dute ezta Homeroek eta poetek, ezta Ion eta rapsodek betetzen, benetan ez dutelako gai guztiei buruz hitz egiteko ezagutza nahikorik. Bigarren printzipioa den osotasunaren printzipioari dagokionez, honek suposatzen du arlo bateko *techne*-a izateak arlo horretan kokatzen den guztiaren inguruan ezagutza izan behar dela, hau da, ezagutzak osoa izan behar duela eta ez soilik partziala. Dialogoan ikus dezakegu Ion soilik dela gai Homerori buruz hitz egiteko, eta gainontzeko poetei buruz ez. Hori dela eta, poeta zein rapsodek osotasun printzipio hau ere ez dute betetzen. Ondorioz, Platonek poeta zein rapsodek *techne*-a dutela ukatzen du horrela.

Azpimarratzekoa da, honek ez duela esan nahi poeta edo rapsodek ez dutela inongo ezagutzarik edo *techne*-rik, soilik espezifikoki poeta edo rapsodari dagokion lana egiteko ez dela horrelakorik behar. Gainera, Platon ez zegoen poeten baliabideen kontra (baliabide poetiko eta erretorikoak), egia transmititzeko balio duen heinean, erabilgarriak izan daitezkeela dio.

Dialogoarekin jarraituz, Sokratesek *techne*-rik baliatzen ez dutelaz gain, beraien lana *enthousiasmos*-aren bidez egiten dutela defendatuko du filosofoak, rapsodaren aurrean. Honekin esan nahi du, Ionek ez duela bere ezagutzatik egiten egiten duena, jainkotasun bati esker baizik.

*Enthousiasmos*-a da Platonen ustez poeta eta rapsodek baliatzen dutena, inspirazio jainkotierra deritzona. Beraien trebetasuna bertatik dator, jainkoak baliatzen baititu poetak eta rapsodak beraien bidez komunikatzeko, hau da, nolabait jainkoaren menpeko sujetu bihurtzen dira. Honek esan nahi du, ez dutela arrazoiaren bidez jokatzeko, honek berriro azpimarratzeko duelarik beraien *techne*-aren falta.

*Enthousiasmos* hori errezitaldietan poeta edo rapsodatik publikora pasatzen da, horrela hauek ere jainkozkoatasun horren menpe daude. Platonek hau dionean Sokratesen ahoan, *enthousiasmos*-ari kutsu negatiboa ematen dio. Nolabait poetari sujetu pasiboaren papera egozten zaio, Jainkoaren menpeko izanik. Poeta edo rapsoda, eta ondorioz entzuleak "poseituta" edo "deabruta" daudela esan daiteke.

Honen bidez, Platonek poesiaren izaera epistemikoa adierazi nahi du, poesiaren eta ezagutzaren harteko harremana alegia.

Gainera, oinarrizko auzia da testuan *techne* eta *enthousiasmos*-aren arteko banaketa ikus dezakegu, bi kontrako bezala tratatzen dituelarik autoreak.

Platonek poesiarekiko duen jarrera eta ikuspuntua ulertzeko, ezinbestekoa da bere testuingurura jotzea. Bere garaian, poesiak eragin izugarria zuen Grezian, arlo guztietan (hezkuntza eta politika barne). Poetak pertsona garrantzitsuak ziren, eta jende asko hurbiltzea lortzen zuten; horregatik, beraien papera oso garrantzitsua zen garai horretan. Nolabait, hezitzaile papera betetzen zuten, jende asko hurbiltzen baitzen, eta beraien usteak transmititzen zituzten beraien emanaldietan, hori publiko osoari helduz.

Platon poeten paper honen guztiz kontra kokatu zen, *polis*-arentzat “hezkuntza” hori jasotzea kaltegarria zela defendatzen zuelako, ez zelako egian oinarritzen, eta horregatik transmititu edo komunikatzen zutena ez zen egia, Platonen ustez izan beharko lukeen bezala. Poetek gaizki hezten zituzten hiritarrak, baina azken finean hezkuntzaren monopolioa zeukaten.

Filosofoaren iritziz, hiritarrak egian hezi beharko liritezke. Horregatik, hezkuntzaren funtzioa filosofoei egozten die, hauek baitira egiaren bilaketan jarduten duten bakarrak. Horregatik, poeten edo poesiak duen papera *polis*-ean, filosofoei edo filosofiari dagokiola defendatzen du Platonek.

Horregatik, erretorika berria filosofiari subordinatuta egon behar dela aldarrikatzen du. Filosofiaren helburu diren egiaren bilaketa eta horren zabaltzea izan behar dela bere helburua. Egiaren bilaketa, arimaren ezagutza, arimaren ongien ezagutza... oinarritu beharko litzateke, ez poeten pertsuazioetan.

Hau dialogoan adierazten da Ionon bidez. Ionek poemak ikasi eta transmititzen ditu, zehatzago izateko Homeroren poemak. Berez, esaten da Ion fikziozko pertsonaia dela eta ez zela benetan existitu, hala ere bere garrantzia rapsoda eta poeten ordezkarietan datza Platonen dialogoan. Filosofiaren defendatzaile Sokrates pertsonaia agertzen zaigu, eta honek egiten dio aurre Ioni.

Oinarrian defendatzen dena da dialogo osoan zehar: ezagutzak techne bat duela, eta rapsodek eta poetek ez dute, beraiek inspirazioaren bidez egiten dute.

Azpitarratzekoa da, Nietzschek esan bezala, Platonen planteamendu honek betirako utzi duela aztarna mendebaldeko literaturan, eta horrela poesia salbatu zela filosofiaren menpe jarrita.

Liburuan kritikatu egiten da dialogoko bi pertsonaiek akats handi bat egiten dutela: mundu erreala eta mundu poetikoaren kritika kriterio okerretik egiten dute. Semantika proposizionalaren eta semantika poetikoaren artean eremu handi bat dago; eta teknikaren eskutik Ionek badu benetako ezagutza bat.

Bestalde, aipatzekoa da dialogo honen, *Ion*, egilearen inguruko eztabaida egon dela; hau da, autorea Platon den ala ez. Orokorrean, autoretza Platoni egozten zaio; baina asko izan dira hau ukatu dutenak. Gainera, beste autore batzuek dialogoaren inguruko irakurketa oso negatiboa ere egin izan dute, Goethe eta Schleiermacher kasu.

Goethek esaterako, azpitarratzen du dialogo hau ez dela filosofia, eta ez duela inongo aportaziorik egiten disziplina honetan. Sokrates Aristofaneseekin konparatu (poeta komikoa) eta dialogoak inongo heziketarik ez duela egiten defendatu zuen, eta poesiaren gaia ere lantzen ez duela, berak intuizio eta sentimenduekin erlazionatzen duela poesia. Schleiermacherrek bestalde, testu oso hutsal eta pobretzat hartzen du, identitaren filosofiatik poesia eta filosofiaren batura aldarrikatzen du. Stolbergek aurretiaz dialogo honi emandako garrantzia ulertzen ez zutelarik. Bi pentsalari hauen irakurketak eragina izan zuen XX. Mendean.

Ondorioz, bestelako pentsalari askok autorea Platon den ala ez zalantzan jartzea suposatu du, aurretik aipatu bezala.

Gutziz kontrara, bestelako pentsalari eta Platonen obraren azertzaileek, obra honen garrantzia azpimarratu dute. *Ion* dialogoan, Platoni horren beste egotzi zaion poesia eta filosofiaren arteko ezberdintzea argi ikus daitekeelako, eta gainera filosofiaren aldeko defentsa bezala irakurri da, ezagutza eta egiari loturik dagoen disziplina bezala poesiaren aurrean. Horregatik honi dagokion papera filosofiari dagokiola ikus daitekeelako, bai *polis*-ean baita hezkuntzan ere. Horregatik, Ion Platonen pentsamendua ulertzeko oinarrizko obratzat hartu dute batzuk.

Honen adibide Hermann dugu, Schleiermacherren ikuspuntua guztiz ukatuko duena. Verdiniusek ere hildo beretik, Ionen dialogoaren oinarrian ezagutza eza eta ezagutzaren arteko dikotomia dagoela defendatu zuen, testua bestelako kontra-jarketa askoz ere osatzen dela azalduz (poesia-filosofia, jainkoa-egia, *techne-enthousiasmos*...), oinarrian dagoen ezagutza eta ezagutza ez hori osatuz.

Laburbilduz, *Ion* dialogoan *techne* eta *enthousiasmos*-aren arteko erabateko ezberdintzea ikus dezakegu. Lehengoa poesiari ez dagokiola defendatzen du autoreak, soilik lehenengoa, horregatik benetako ezagutza edo egia suposatzen ez duelarik. Gainera, Platon bere garaian nagusia zen poesiarekin oso kritiko agertzen zaigu, filosofiaren aldeko aldarrikapen bat egiten, hiritarrei egia irakasteko beharra azpimarratuz, eta ez garaiko poesiak egiten zuena. Honen bidez, poesia eta filosofiaren arteko ezberdintze garrantzitsu bat egiten du, lehengoa arbuiatuz. Hau guztiagatik, polis-ak filosofoen hezkuntza behar duelakoan dago, eta ez poetena, bere funtzionamendu onenera begira.